

# *IBALUR*



LUR INGURU

2. EBALUAZIOA

2022-2023 IKASTURTEA

Alex Aramburu, Ibai Aranburu eta Urko Erauskin

**AURKIBIDEA:**

- **Proiektuaren aurkezpena..... 3**
- **Proiektuaren zergatia..... 4**
- **Proiektuaren garapena..... 5**
- **Proiektuaren zati gogoko eta gogorrena..... 6**
- **Ikasi duguna eta gure ingurua..... 7**

Zurriola ikastolako ikasleak gara, zehazki, batxillergoko 2. mailakoak. Gure izen abizenak Urko Erauskin, Ibai Aranburu eta Alex Aramburu dira. Saria irabaziz gero gure kontakturako zenbakia **617180706 (Alex Aramburu)** izango da. Gure taldearen izena **IBALUR** da; Gure izenak eta naturarekin biltzen dituen hitz-jokoa da. Proiektu honekin lortu nahi dugu, jendeak ikustea posible dela plastikoari bigarren bizitza bat ematea.



Proiektu hau plastikozko tapoiez osatutako mural bat da, murala Donostiako Kontxa hondartzaren barandilaren irudia da. Proiektu hau egitea erabaki degu plastikozko tapoia berrerabiltzeaz gain ikastolan mural bat ipiniko degulako eta originala dela pentsatzen degulako. Klasean ikusitako itsasoaren egoeraren bideoak inspiratu gaitu proiektu hau egiteko, hau da, ikusi degu plastiko asko itsasoan bukatzen duela, horregatik plastikozko tapoia berrerabiltzea erabaki dugu.



6 klase behar izan ditugu proiektua garatzeko gutxi gora behera. Proiektu hau osatzeko lehenik eta behin murala nun jarri pentsatzen jarri ginen eta azkenean okurritu zitzaigun ikastolan jartzea, orduan, ikastolaren zuzendariaren baimena behar genuenez gmail bat idatzi genion baimen hori eskatzen. Gero, LH-ko irakasleei gmail bat bidali genien ikastolako ikasle guztiei tapoiak ekartzea esateko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei tapoiak ekartzea eskatzeko klasez klase joan ginen. Hurrengo egunean, zuzendariak baimena eman zigun jangela ondoan dagoen koadro bat gure muralarekin ordezkatzeko, orduan zati hori neurtu genuen eta neurri horietara moldatzen zen lientzo bat bilatu genuen. Lientzoa hartu genuen eta urdinez margotzen hasi ginen itsasoaren fondoa edukitzeko. Ondoren, tapoi bilketa egin genuen eta tapoiekin Kontxako barandilaren forma egin genuen eta ondo gelditzen dela eta tapoi nahikoak genituela ikustean tapoiak itsasten hasi ginen. Tapoiak itsatsi ondoren arrainak plastikozko bilgarriekin itsatsi genituen.



Zati **gogokoena** dudarik gabe lientzoa margotzerako orduan izan zen, oso ondo pasa genuelako eta horrez gain, ondo margotzera ikasi genuelako. Tapoi bilketa baita ere oso dibertigarria izan zen, gelaz-gela joaterakoan txikitako oroitzapenak etorri zirelako eta herrimin handia sortu zitzaigun.

Zati **gogorrena**, berriz, tapoiak itsasterakoan izan zen. Oso gogorra egin zitzaigun tapoiak itsastea eredu jarraituz; tapoiak tamaina desberdinekoak zirenez zaila egiten zen segida berdina jarraitzea.



Proiektu honekin plastikoa gauza **zoragarriak** egiteko erabili behar dela ikusi degu, **planeta salbatzeaz** gain gauza asko egin ditzakezulako plastikoarekin. Hau da, berrerabilera lurrarentzat garrantzitsua eta aldi berean produktiboa dela ikasi dugu.

Hortaz gain, proiektu honekin pertsona askotara iritsi gara, batez ere irakasle eta ikasleetara. Irakasleak gure proiektu erakutsi bezain pronto asko inbolukratu dira, tapoiak ekarriz, laguntza eskainiz... Baita ere zuzendaritzarekin kontaktuak jarri ginen tapoi bilketarekin laguntza eskatu. Horrez gain, gure ikastolako txikienak baita ere parte hartu dute gure projektuan, lehenengo egunetik tapoiak eskaini dizkigute eta gainera oso jatorrak izan dira gurekin beraiekin harreman handia dugulako.



<https://youtube.com/shorts/-SXP1Ry8cA4?feature=share>